| | |
|---|---|
| **ERRENTERIAKO UDALA**<br>Idazkaritza | **AYUNTAMIENTO DE ERRENTERIA**<br>Secretaría General |

**UDALBATZAK 2015EKO EKAINAREN 13AN EGINIKO ERAKETA BILKURARI DAGOKION AKTA**

Errenteriako udaletxeko bilkura-aretoan bi mila eta hamabosteko ekainaren hamahiruko goizeko 11:00etan, maiatzaren 24an eginiko Udal-hauteskundeetan hautatuak izan ziren ondoko zinegotziak elkartu dira:

***EHBILDU***

Julen MENDOZA PÉREZ
Jaione KARRIKIRI GARAÑO
Garazi LOPEZ DE ECHEZARRETA AUZMENDI
Eñaut GRACIA IBARRA
Itziar OSTOLAZA GALDÓS
Jon TXASKO ORGILLES
Bernardo LEMOS TABERNA

***PSE-EE (PSOE)***

José Ángel RODRÍGUEZ MEDINA
María Almudena DE LA TORRE FERNÁNDEZ
Isaac PALENCIA CABALLERO
María Teresa AZPILICUETA LLORENTE
Joseba ECHARTE MARTÍN
Montserrat LUIS CANO
Iñaki RUIZ ALONSO

**Errenteria IrabaziZ**

Yon COLLAR RIOSECO
Jose Cruz LEGORBURU AYESTARÁN
Nagore BASURTO ESCAMILLA
Miguel María RODRÍGUEZ BARBERO

***E.A.J./P.N.V.***

Maite PEÑA LÓPEZ
José Manuel FRANCO INSAUSTI
Garbiñe OYARBIDE IRURETAGOYENA

Bertan dago, egintzaz fede emateko, Nagore SARASOLA OTERMIN idazkari anderea.

**ACTA DE LA SESION CONSTITUTIVA DEL PLENO DE LA CORPORACION CELEBRADA EL DIA 13 DE JUNIO DE 2015**

En la Casa Consistorial del Ayuntamiento de Errenteria, siendo las 11:00 horas del día trece de junio de dos mil quince, se reúnen los Concejales electos que se relacionan a continuación, que han resultado proclamados en las Elecciones Municipales celebradas el día 24 de mayo del año en curso.

***EHBILDU***

Julen MENDOZA PÉREZ
Jaione KARRIKIRI GARAÑO
Garazi LOPEZ DE ECHEZARRETA AUZMENDI
Eñaut GRACIA IBARRA
Itziar OSTOLAZA GALDÓS
Jon TXASKO ORGILLES
Bernardo LEMOS TABERNA

***PSE-EE (PSOE)***

José Ángel RODRÍGUEZ MEDINA
María Almudena DE LA TORRE FERNÁNDEZ
Isaac PALENCIA CABALLERO
María Teresa AZPILICUETA LLORENTE
Joseba ECHARTE MARTÍN
Montserrat LUIS CANO
Iñaki RUIZ ALONSO

***Errenteria IrabaziZ***

Yon COLLAR RIOSECO
Jose Cruz LEGORBURU AYESTARÁN
Nagore BASURTO ESCAMILLA
Miguel María RODRÍGUEZ BARBERO

***E.A.J./P.N.V.***

Maite PEÑA LÓPEZ
José Manuel FRANCO INSAUSTI
Garbiñe OYARBIDE IRURETAGOYENA

Asiste y da fe del Acto la Secretaria General, Dª. Nagore SARASOLA OTERMIN.

Halaber, bertan da Mª José SANCHEZ PLAZA jarduneko kontu-hartzailea ere.

Idazkari andereak jakinarazi du, Bilkura honen helburua dela Udalbatza eratzea, 2015eko maiatzaren 24an herriko hauteskundeetan izandako emaitzen arabera, betiere Hauteskunde Orokorreko Araubideari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 195.1 artikuluak agintzen duenari jarraiki eta Toki Udalbatzen Antolaketa eta Funtzionamenduko Erregelamenduaren 37.1 artikuluaren arabera. Gai Zerrenda ondorengoa izanik:

- Udalbatzaren eraketa.

- Alkatearen hautaketa eta jabetza hartzea, hala badagokio.

Aurrez, idazkari orokorrak adierazi du indarreko legeriari jarraiki zinegotzi hautetsi guztiek aitortu dituztela bateraezintasun-arrazoiak izan daitezkeenak eta ondasun eta jarduerak.

Idazkari orokorrak adierazi du Toki Korporazioen Antolaketari eta Funtzionamenduari buruzko Araudiaren 36.3 artikuluan xedatutakoari jarraiki, neurriak hartu dituztela kutxako kontaketa egiteko eta Udalaren eskudiruzko izakinen eta balioen frogagiriak prest daudela espedientean, ondarearen inbentarioaren gaineko dokumentazioarekin batera.

Jarraian, Adin-mahaia osatu dute, Hauteskunde Orokorreko Araubideari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 195.2 artikuluak aurreikusten duena. Mahaia hautaturiko zinegotzi zaharrena den Jose Cruz LEGORBURU AYESTARÁN jaunak eta zinegotzi gazteena den Iñaki RUIZ ALONSO jaunak osatu dute. Idazkari lanetan Nagore SARASOLA OTERMIN andreak jardun du, hots, bilkurakoak ere denak.

Mahaiburuak bilkura hasitzat eman du.

Asiste asimismo la Interventora en funciones Mª José SANCHEZ PLAZA.

La Secretaria General da cuenta de que el objeto de la presente Sesión es la Constitución del nuevo Ayuntamiento de Errenteria a la vista de los resultados obtenidos en las pasadas elecciones locales de 24 de mayo de 2015, en cumplimiento de lo ordenado en el Art. 195. 1 de la Ley Orgánica 5/1985, de 19 de Junio, de Régimen Electoral General y en el Art. 37.1 del Reglamento de Organización y Funcionamiento de las Corporaciones Locales, conforme al siguiente Orden del Día:

- Constitución de la Corporación.

- Elección del Alcalde y Toma de Posesión, en su caso.

Previamente la Secretaria General da cuenta de que de acuerdo con la legislación vigente, todos los Concejales electos han formulado declaración sobre causas de posible incompatibilidad y declaración de bienes y actividades.

La Secretaria General también da cuenta de que de acuerdo con lo dispuesto en el Art. 36.2 del Reglamento de Organización y Funcionamiento de las Corporaciones Locales se han tomado las medidas para proceder al arqueo y están preparados en el expediente los justificantes de existencias en metálico y valores de la Corporación, así como la documentación relativa al inventario del patrimonio.

A continuación se procede a formar la Mesa de edad, prevista en el Art. 195.2 de la Ley Orgánica 5/1985, de 19 de Junio, de Régimen Electoral General que queda integrada por el Concejal electo don Jose Cruz LEGORBURU AYESTARÁN, por ser el de mayor edad, que la preside, y por el Concejal electo don Iñaki RUIZ ALONSO, por ser el de menor edad, actúa como Secretaria doña Nagore SARASOLA OTERMIN, que lo es también actuante de esta Sesión.

El Presidente de la Mesa de Edad declara abierta la



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

Sesión.

Mahaiko idazkariak irakurri ditu aldez aurretik emandako egiaztagiri guztiak, hau da, hautaturiko zinegotzien nortasun egiaztagiriak, eta mahaikideek Zonalde honetako Hauteskunde Batzordeak bere garaian Udalera igorritako ziurtagiriekin frogatu eta ondo daudela adierazi dute.

La Secretaria de la Mesa da lectura a todas y cada una de las Credenciales que previamente le han sido entregadas, acreditativas de la personalidad de los Concejales electos y que comprobadas por los miembros de la Mesa con el Acta de Proclamación de Electos que en su día remitió a este Ayuntamiento la Junta Electoral de Zona, resultan conformes.

Jarraian, Idazkariak Hauteskunde Orokorreko Lege Organikoaren 108.8 artikuluan xedatutakoaren arabera, euskaraz eta gaztelaniaz zinegotziei ondorengo galdera egin die: “Hitz ematen al duzue ohorez eta kontzientziaz, Errenteriako Udaleko zinegotzi karguak dakarzkizuen betebeharrak zintzo beteko dituzuela Erregearekiko leialtasunez eta Konstituzioa eta Euskadiko Autonomi Estatutua Estatuko oinarrizko arau gisa errespetatu eta errespetaraziko duzuela?”. *“¿Juráis o prometéis por vuestra conciencia y honor cumplir fielmente las obligaciones del cargo de concejal del Ayuntamiento de Errenteria, con lealtad al Rey, y respetar y hacer respetar la Constitución como Norma Fundamental del Estado y el Estatuto de Autonomía de Euskadi?”.*

La Secretaria General, conforme a lo dispuesto en el Art. 108.8 de la LOREG (Ley Orgánica de Elecciones Generales) formula en euskera y castellano a los Concejales la siguiente pregunta: “Hitz ematen al duzue ohorez eta kontzientziaz, Errenteriako Udaleko zinegotzi karguak dakarzkizuen betebeharrak zintzo beteko dituzuela Erregearekiko leialtasunez eta Konstituzioa eta Euskadiko Autonomi Estatutua Estatuko oinarrizko arau gisa errespetatu eta errespetaraziko duzuela?”; “¿Juráis o prometéis por vuestra conciencia y honor cumplir fielmente las obligaciones del cargo de concejal del Ayuntamiento de Errenteria, con lealtad al Rey, y respetar y hacer respetar la Constitución como Norma Fundamental del Estado y el Estatuto de Autonomía de Euskadi?”.

Ondoren, mahaiburuak zinegotziei banaka-banaka hots egin die, eta hauek ondorengo eran erantzun:

- AZPILICUETA LLORENTE, Mª Teresa: “Bai, hitzematen dut”.
- BASURTO ESCAMILLA, Nagore: “Bai, hitzematen dut”.
- COLLAR RIOSECO, Yon: “Hitzematen dut demokrazia erradikala defendatuko dudala, etika, justizia soziala eta kultura Errenteriako biztanle ororentzat. Legeak hala aginduta, zin egiten dut”.
- DE LA TORRE FERNANDEZ, Mª Almudena: “Bai, hitzematen dut”.
- ECHARTE MARTIN, Joseba: “Bai, hitzematen

A continuación el Presidente de la Mesa de Edad nombra a los Corporativos uno a uno que, individualmente, responden de la siguiente manera:

- AZPILICUETA LLORENTE, Mª Teresa: “Sí, prometo”.
- BASURTO ESCAMILLA, Nagore: “Sí, prometo”.
- COLLAR RIOSECO, Yon: "Prometo defender la democracia radical, la ética, la justicia social y la cultura para toda la ciudadanía de Errenteria. Por imperativo legal, sí prometo. Legeak hala aginduta zin egiten dut"
- DE LA TORRE FERNANDEZ, Mª Almudena: “Sí prometo”.
- ECHARTE MARTIN, Joseba: “Sí prometo”.



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

dut".

- FRANCO INSAUSTI, José Manuel: "Legeak hala aginduta, hitzematen dut".
- GRACIA IBARRA, Eñaut: "Bai, herritarrek emandako mandatua beteko dudala zin egiten dut".
- KARRIKIRI GARAÑO, Jaione: "Legeak hala aginduta, hitzematen dut".
- LEMOS TABERNA, Bernardo: "Abertzalea eta errepublikarra naizen heinean legez aginduta, hitzematen dut".
- LOPEZ DE ECHEZARRETA AUZMENDI, Garazi: "Legeak hala aginduta, hitzematen dut".
- LUIS CANO, Montserrat: "Bai, hitzematen dut".
- MENDOZA PÉREZ, Julen: "Legeak hala aginduta, hitzematen dut".
- OSTOLAZA GALDOS, Itziar: "Legeak hala aginduta, hitzematen dut".
- OYARBIDE IRURETAGOYENA, Garbiñe: "Legeak hala aginduta, hitzematen dut".
- PALENCIA CABALLERO, Isaac: "Bai, hitzematen dut".
- PEÑA LÓPEZ, Maite: "Legeak hala aginduta, hitzematen dut".
- RODRIGUEZ BARBERO, Miguel María: "Estatu errepublikano, federal, solidario eta laiko baten alde dagoen herritarra izanik, demokraziako eta parte-hartzeko balioetatik, eta jakitun izanik udalerriaren gaineko ardura dugula eta baita interes publikoa, pertsonen arteko berdintasuna eta justizia soziala eta ingurumena defendatzekoa ere; legeak hala aginduta zin egiten dut, ekologia politikoaren defentsa eta balioei uko egin gabe".

- FRANCO INSAUSTI, José Manuel: "Por imperativo legal, sí prometo".
- GRACIA IBARRA, Eñaut: "Si, prometo que cumpliré el mandato otorgado por los ciudadanos".
- KARRIKIRI GARAÑO, Jaione: "Por imperativo legal, sí prometo".
- LEMOS TABERNA, Bernardo: "En la medida en que soy abertzale y republicano, por imperativo legal, sí prometo".
- LOPEZ DE ECHEZARRETA AUZMENDI, Garazi: "Por imperativo legal, sí prometo".
- LUIS CANO, Montserrat: "Sí, prometo".
- MENDOZA PÉREZ, Julen: "Por imperativo legal, sí prometo".
- OSTOLAZA GALDOS, Itziar: "Por imperativo legal, sí prometo".
- OYARBIDE IRURETAGOYENA, Garbiñe: "Por imperativo legal, sí prometo".
- PALENCIA CABALLERO, Isaac: "Sí prometo".
- PEÑA LÓPEZ, Maite: "Por imperativo legal, sí prometo".
- RODRIGUEZ BARBERO, Miguel María: "Estatu errepublikano baten alde dagoen herritarra izanik, federal, solidario y laico, desde los valores democráticos y participativos, y entendiendo que tenemos una responsabilidad con este municipio, así como con la defensa del interés público, la igualdad de las personas y la justicia social y medioambiental; legeak hala aginduta zin egiten det, por imperativo legal y sin



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

renunciar a la defensa y los valores de la ecología política, sí prometo"

- RODRÍGUEZ MEDINA, José Ángel: “Bai, hitzematen dut”.
- TXASKO ORGILLES, Jon: “Legeak hala aginduta, hitzematen dut”.
- LEGORBURU AYESTARAN, José Cruz: “Estatu errepublikano baten alde dagoen herritarra izanik, eta balio demokratikoetatik, legeak hala aginduta, hitzematen dut”.
- RUIZ ALONSO, Iñaki: “Bai, hitzematen dut”.

- RODRÍGUEZ MEDINA, José Ángel: “Sí prometo”.
- TXASKO ORGILLES, Jon: “Por imperativo legal, sí prometo”.
- LEGORBURU AYESTARAN, José Cruz: "Como ciudadano partidario de un estado republicano y desde los valores democráticos, por imperativo legal sí prometo"
- RUIZ ALONSO, Iñaki: “Sí prometo”.

Jarraian, hautaturiko 21 zinegotziak bilkurara etorri direnez, Udalbatza eratua dagoela aitortu da.

A continuación, habida cuenta de que concurren a esta Sesión los 21 Concejales electos, se declara formalmente constituida la Corporación.

Hauteskunde-araubide Orokorraren 5/1985 Lege Organikoaren, ekainaren 19koaren, 196 artikuluak agintzen duenari jarraiki, Udalbatza eratzen den osoko bilkura berean alkatea hautatu behar da, aipatutako aginduak finkatzen duen prozeduraren arabera. Alegia:

Tal como dispone el Art. 196 de la Ley Orgánica 5/1985, de 19 de Junio, del Régimen Electoral General, en la misma Sesión de la Constitución de la Corporación, ha de procederse a la elección de Alcalde, de acuerdo con el procedimiento establecido en dicho precepto, y que es como sigue:

a) Zerrendaburu diren zinegotzi guztiak izan daitezke alkategai.

b) Horietako bateren batek gehiengo osoaren botoak erdiesten baditu, zuzenean izendatua izango da.

c) Eta horietako bakar batek ere ez baditu lortzen gehiengo osoaren botoak, orduan, herrian botorik gehien erdietsi duen zerrendaburua izango da Alkate.

d) Bototan berdinketa emango balitz, zozketa egingo litzateke.

a) Pueden ser candidatos todos los Concejales que encabecen sus correspondientes listas.

b) Si alguno de ellos obtiene la mayoría absoluta de los votos de los Concejales es proclamado electo.

c) Si ninguno de ellos obtiene dicha mayoría es proclamado Alcalde el Concejal que encabece la lista que haya obtenido mayor número de votos populares en el correspondiente municipio.

d) En caso de empate se resolverá por sorteo.

Udal honetako Araudi Organikoaren 11. artikuluari jarraiki, bozketa isilpekoa izango da.

Conforme a lo dispuesto en el art. 11 del Reglamento Orgánico Municipal la votación será secreta.

Adin-mahaiak taldeei galdera egin die, eta Errenteriako Irabaziz eta EAJ/PNV taldeek uko egin diote alkatetzarako hautagaia aurkezteari.

Previa consulta por parte de la Mesa de Edad a los distintos grupos y ante la negativa tanto de Errenteriako Irabaziz, como de EAJ/PNV a presentar



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

sus candidatos a la Alcaldía.

Ondorengo hautagaiak izan dira izendatuak:

- **Julen MENDOZA PEREZ jauna**, *EHBILDU*
- **José Ángel RODRÍGUEZ MEDINA jauna**, *PSE-EE (PSOE)*

Ondoren, idazkariak hautatu bakoitzari txartel txuri bana eman dio, eta bertan, hautatuek alkate izateko botoa eman nahi dioten zinegotziaren izen-deiturak ipini behar dituzte, eta gero hautestontzian sartu.

Hautes-txartelak hautestontzian sartu ondoren, boto kontaketari ekin zaio mahaiburuak txartel bakoitzean adierazitako alkate hautagaiaren izen-deiturak ozen irakurriz. Emaitza honako hauxe izan da:

- Julen MENDOZA PEREZ jauna, ***EHBILDU:*** 11 boto
- José Ángel RODRÍGUEZ MEDINA JAUNA, ***PSE-EE (PSOE):*** 7 boto

- Boto zuriak: 3 boto.

- Boto baliogabeak: 0

Bozketaren arabera, gehiengo osoa lortu duenez, **Julen MENDOZA PEREZ jauna (EHBILDU)** Errenteriako Udaleko alkate izendatu da.

Idazkari orokorrak, Hauteskunde Orokorreko Lege Organikoaren 108.8 artikuluan xedatutakoaren arabera, galdera hau egin dio euskaraz eta gaztelaniaz alkateari: “Hitz ematen al duzu ohorez eta kontzientziaz, Errenteriako Udaleko alkate karguak dakarzkizun betebeharrak zintzo beteko dituzula Erregearekiko leialtasunez eta Konstituzioa eta Euskadiko Autonomi Estatutua Estatuko oinarrizko arau gisa errespetatu eta errespetaraziko duzula?”; “¿Juras o prometes por tu conciencia y honor cumplir fielmente las obligaciones del cargo de Alcalde del Ayuntamiento de Errenteria, con lealtad al Rey, y

Quedan proclamadas las candidaturas siguientes:

- **D. Julen MENDOZA PÉREZ**, *EHBILDU*
- **D. José Ángel RODRÍGUEZ MEDINA**, *PSE-EE (PSOE)*

La Secretaria facilita a cada elector una papeleta en blanco con la indicación de que en la misma deben consignar el nombre y apellidos del Concejal que se vote para Alcalde, y depositarla en la urna.

Depositadas las papeletas, se procede al escrutinio y recuento de votos, leyendo el Presidente de la Mesa de Edad en voz alta, el nombre y apellidos del Concejal propuesto para Alcalde en cada papeleta, dando el siguiente resultado:

- D. Julen MENDOZA PÉREZ, ***EHBILDU:*** 11 votos
- D. José Ángel RODRÍGUEZ MEDINA, ***PSE-EE (PSOE):*** 7 votos

- Votos en blanco: 3 votos

- Votos nulos: ninguno

A la vista del resultado de esta votación, habida cuenta de que ha obtenido la mayoría absoluta en la misma, queda proclamado Alcalde del Ayuntamiento de Errenteria **Don Julen MENDOZA PÉREZ, EHBILDU.**

La Secretaria General, conforme a lo dispuesto en el Art. 108.8 de la LOREG (Ley Orgánica de Elecciones Generales) formula en euskera y castellano al Alcalde la siguiente pregunta: “Hitz ematen al duzu ohorez eta kontzientziaz, Errenteriako Udaleko alkate karguak dakarzkizun betebeharrak zintzo beteko dituzula Erregearekiko leialtasunez eta Konstituzioa eta Euskadiko Autonomi Estatutua Estatuko oinarrizko arau gisa errespetatu eta errespetaraziko duzula?”; “¿Juras o prometes por tu conciencia y honor cumplir fielmente las obligaciones del cargo de Alcalde del Ayuntamiento de Errenteria, con lealtad al Rey, y

respetar y hacer respetar la Constitución como Norma Fundamental del Estado y el Estatuto de Autonomía de Euskadi?".

Julen MENDOZA PÉREZ alkateak (EHBILDU) erantzun du: "Legeak hala aginduta, hitzematen dut".

* Jarraian, Mendoza alkate jaunak (EHBILDU) hau esan du euskaraz eta gazteleraz:

respetar y hacer respetar la Constitución como Norma Fundamental del Estado y el Estatuto de Autonomía de Euskadi?".

El Alcalde Julen MENDOZA PÉREZ **EHBILDU**, responde: "Por imperativo legal, sí, prometo".

* Seguidamente el Alcalde, Sr. Mendoza, EHBILDU, manifiesta tanto en euskera como en castellano:

" Egunon guztioi, hemen zaudetenoi, kalean pantailan zaudetenoi, edo/eta etxean streaming bitartez ikusten ari zaretenoi. Egunon guztioi, eta mila esker gaur hemen gertatzen ari dena jarraitzeagatik, interesa erakusteagatik. Nire hizketaldi labur hau Pepe Mujika Uruguayko presidente ohiaren hitz batzuk irakurriz hasi nahiko nuke. Admirazio berezia diot pertsona honi, munduan erreferentzia den pertsona honi, bereziki borroka eta humanismoa batera doazela erakusten diolako munduari behin eta berriro. Empiezo leyendo unas palabras de Pepe Mujika, expresidente de Uruguay, al que tengo una enorme admiración. Son palabras que trasladó a su país en el día de su despedida como presidente: *"Pasaron 5 años. En una lucha entre el egoísmo natural que llevamos adentro y que nos lo puso la naturaleza para defender nuestra vida y la vida de lo que nos rodea. Esa lucha, con la otra gran fuerza, la solidaridad. Sepamos la solidaridad es la defensa a largo plazo de la especie. El egoísmo, la necesidad para defender nuestra vida y la de nuestros seres queridos. Querido pueblo, gracias por tus abrazos. Gracias por tus críticas, gracias por tu cariño y sobre todo, gracias por tu hondo compañerismo cada una de las veces que me sentí sólo en el medio de la Presidencia. Si tuviera dos vidas, las gastaría enteras para ayudar tus luchas, porque es la forma mas grandiosa de querer la vida que he podido encontrar a lo largo de mis casi 80 años. No me voy, estoy llegando. Me voy a ir con el último aliento y donde esté, estaré por ti, contigo. Porque es la forma superior de estar con la vida. Gracias querido pueblo."* Pepe Mujikaren hitz hauek laburbiltzen dute barrutik sentitu, pentsatu eta esan nahi dudana, zaila baita esplikatzea zerk ekartzen gaituen hona. Berak dioen bezala, badago egoismo natural bat, gure barruan duguna, gure bizitza eta gure familiaren bizitza defendatzera eramaten gaituena. Eta horretan saiatu gera lau urtez hemen egon garenak eta egongo garenak. Argi izaten gure bizitzako kausarik gorenena familia babestu eta maitatzea dela, familiak ematen digulako indarra eta segurtasuna gure bizitzan hain inportantea den bigarren arrazoi horri heltzeko: elkartasuna, herriarekiko elkartasun eta maitasuna. Y esa es la disyuntiva, y la contradicción permanente entre el egoísmo natural y la solidaridad, porque existe una causa que supera nuestra propia existencia y que a su vez va a acompañarnos a lo largo de toda nuestra existencia. Porque ese camino que ha sido recorrido antes por otros y otras, que esta siendo recorrido ahora por nosotros y nosotras, y que seguirá siendo recorrido por nuestros hijos e hijas, no tiene final. Es el camino de la búsqueda de la dignidad de la especie humana. Es quizás una utopía, pero como bien decía Eduardo Galeano, las utopías sirven para caminar, porque es el camino y no el final lo más importante de nuestra causa. Y esta causa no entiende de siglas. Esta causa es de mayorías sociales amplias. Horregatik, gaur nire eskertzarik barrukoenak Errenteria Irabaziz-eko eta EHBilduko gure herriko kide guztiei zuzendu nahi dizkiet, siglen gainetik gure borrokaren zentzua gailendu delako. Ostegunean Koldo Mitxelenako patioan gertatu zena, eta gaur hemen gertatzen ari dena, gure herriaren historian mugarri bat da. Orain emozioen dimentsioa ikusteko gai gara, baina ez ondorio politikoen dimentsioa. Hori denborak erakutsiko digu. Eskertzarik sentikorrenak ere lau urte hauetan udal gobernu taldean aritu zareten guzti horiei, zinegotziak izan ala ez, udaletxean egon ala patronatuetan egonda. Ezinezkoa zirudiena lortu genuen eta lortu dugu. Aldaketa ekarri dugu, funtzionatzeko beste modu bat,



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

gertutasuna herritarrekiko, eta kanpainan esan nuen bezala honestidadea, zintzotasuna ekarri diozue politikari. Y ahí también incluyo a mi amigo Ferra, que ha sido un compañero de batalla política, y sobre todo un fiel amigo. Zorte on guzti guztioi, hoberena merezi duzue-eta zuen ibilbide berrian. Hoy damos comienzo a una nueva legislatura. Una legislatura que espero y deseo consiga los mismos o mayores acuerdos y consensos en materia de pacificación. Habeís sido el conjunto de grupos políticos un referente en esta materia, vaya por tanto mi más sincero reconocimiento y la esperanza de que así siga siendo. Y la esperanza también, que de una vez por todas, se destierre el sufrimiento que en nuestro pueblo aún, hoy, se está produciendo. Y para ello, todos y todas tenemos que asumir mayores compromisos. Hau nire bigarren eta azken legegintzaldia izango da. Eta amets bat dut eta gustatuko litzaidake amets hori errealitate bihurtzea lau urte hauetan: bada Euskal Herrian masa kritiko bat, gehiengo sozial zabal bat, sakoneko aldaketak eskatzen dituena. Bada gehiengo sozial zabal bat pertsonen eta herrien erabakitzeko eskubidea defendatzen duena, eraldaketa sozial eta politiko sakona emateko. Eta badira gehiengo hori ordezkatzen duten indar politikoak ere. Visión estratégica y de país, y confianza política entre las fuerzas que buscan el cambio. Ese es mi sueño: que la foto que hoy tenemos aquí sea la foto que tendremos mañana en Euskal Herria. Eskerrik asko bozkatu gaituzuen guztioi, eskerrik asko EHBilduko kide guztioi, eskerrik asko Errenteria Irabazizeko kide guztioi."

Mintzaldia amaitu da.

---------------

Eta deialdiko helburua bete ondoren, Alkateak bilkura amaitutzat eman du 11:40 zirela. Nik, Idazkariak, ziurtatzen dudana.

Finalizada la intervención.

---------------

Cumplido el motivo de esta Convocatoria, el Alcalde-Presidente levanta la Sesión a las 11:40 horas, de todo lo cual, yo como Secretaria, certifico.



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net